

# Txakur kontuak

*(Euskalerrian beti izandu gera txakur-zale, eiztari ta artzaiak batez ere. Ikustekoak, diotenez, Oñati'n da Orduña'n igaz egindako txakur-jolas eta sariketak. Oitara joan ezin geranontzat batu ditugu, Reader's Digest'en geienak, ondorengo txakur-kontu politikak. Zeorrek ere irakurle, ainbat olako dakitzu noski. Bialdu zaizkiguz politenak, bildur gabe, beste askok pozik irakurriko dituzte'ta.)*

*DUKE* gure txakur ederrak lau urte egiñak zeuzkan arren, bere okerreriak alde batera uzteko asmorik etzeukan iñolaz ere. Silloi gañetako bigungarriak desegintzen ari bear naita nai ez. Onezkero alperrik zala-ta norbaiti erregalatzia erabaki nun. Baña arratsalde artan bertan *DUKE* ta biok alkarrekin azkeneko ibillaldia egiteko asmoz atera giñanean, Susana nere alabatxoari agindu bezela, au zinetik irten-zai an inguruan gelditu giñan. Zinea amaitu zaneko agertu zan Susanatxo ta kalean zear gugana abiatu. Umetan gaxo gogor bat izan zuan ezker, koska ta mallak iñoren laguntasun gabe igotzeko etzan gauza gure neskatilla, ta espaloi-koskan gelditu zitzaigun geuri begira. Eskua emateko urreratu nintzan, baña ordurako ¡ene arrigarria! Susanaren onduan ipur-gañean jarri ta bere burua zuzen-zuzen, oso tente zuala *DUKE* gure txakurra. *DUKE*'n buruan eskutxoa tinkatuz Susanak etzuan beste lagun bearrik izan espaloiko malla igotzeko.

Etixerakoan ikusi nun ate-aurreko iskillilla-mallak ere, lengo era berean, txakurrak lagunduaz igo zituala nere alabak.

*DUKE*'k lengo okerreri berdiñak egiten dizkigu oraindik ere... Ez daukat orraitio iñori saltzeko.

*(Charlotte, Michigán)*

*BIBI*, nerekin ibiltzea oso atsegin zaion gure txakur txikia da. Beti libre ta nai dituan jolas guztiak egiten uztekotan ordea. Lepoko ubela eskuan artuta ikusten naunean ezezko gogorra adierazten dit. Lengoan, baña, ubel ori galdu zan. Billa ta billa jainkoarenak eginda agertu etzarian, *BIBI* pascora eraman gabe gelditzea ere ez iruditzen da lokarri baten bidez lotuta atera nun nere txakurtxo. Ubela txarra ba'zan lokarri-soka anitz okerrago begitandu zitzaion nunbait *BIBI*'ri. Laugarren egunean, berari egiten niona azkenaren azkena zala pentsatuaz alegia, ez dakit nundik baña bere lepoko-ubeltxo ori azaldu zigun gure *BIBI*'k, atariko atean bertan, danak ikusi lezaketen lekuan, utzi zun utzi ere. «*Gaitz izatekotan gaitzerdi obe*» esan nai balu bezela.

(*Baltimore, Maryland*)

Neguko arratsalde zazkar baten, umetxoen bat jo ezinda ari balitz bezela, bein da birritan entzun zuan atariko tinbria nere emazteak. Leiora atereaz, zer ikusiko... ta *REX* gure *foxterrier*'a lurrean etzanda nai ta ezin indarka, ala ere noizean bein ate-ertzaren kontra zutundu ta aurreko anakin tinbreraño eltzeko alegiñak egiten.

Ettxekoandreak atea edegi zionean, bere oñetan ¡blaut! erortzeko lain kemen izan zun txakur errukarriak... Batenbatek tiro ikaragarri bat eman da zetorren.

*REX* guriak etzuan sekula ere tinbrerik jo egun onetararte. Eta gero ere, bere zauritik guztiz osatuta aspaldian geukin bizi dan arren, gero ere etzaio iñoiz otu tinbre-jotzerik.

Iñolaz ere bere burua ain estu ikustean, eta ataria itxita arkiturik, gurrera etorrtzen ziranak atea zabaltzeko egin oi zutenaz oroitu zan.

(*Lewiston, Illinois*)

(*Jarraitzeko*)

